

Herratu, zalantzati, helduleku fermurik gabe alderrai dabilen gizarte likido baten marea da jende likidoa. Tantaka, ipuinez ipuin, itsaso garaikidea osotzen duena, narrazioa fluxu bat bilakatu arte. Perspektiba ariketa bat ere bada. Ikuspuntu orokor batetik gizarte postmodernoa begia jartzea. Gai likidoek sostengatuko dituzte ipuinok, hala nola; maitasun likidoak, identitate anizkoitzak, polimaitasunak, bakardadeak, huts sentsazioak, irudiaren tiraniak...pixkanaka, marea osotzen duen jende likidoa zoom bidez fokatzeko.

Azaleko geruza batek bustiko ditu pertsonaiok, iragazkor bihurtu gai likidoekiko. Beraien minetan, zaurietan, bideetan duen eragina jakin gabe, etengabe interpelatuko dute gizarte likidoa. Erantzuna, ordea, irakurleak baino ez du jakingo. Nabardura honetan sostengatzen da liburuaren fikzioa eta era berean, fikzioa hau uraren ezaugarrietan oinarrituko da. Itsas- ozeanoen epikatik ihes egin eta likidoaren alde bare, isil, moldagarri edota, denboraren poderioz higitzeko duen gaitasunari erreparatuko zaio. Hauexek direlako egunerokotasunarekin parekotasun gehien dituztenak.

Beraz, ur prosaikoek bustiko dituzte narrazioak; lixibaz betetako baldeek, hoditeriek, harraska buxatuek, likido lingirdatsuek...eta hauen bidez, ur mitologiatik urrun geratzen den jende likidoa eraikiko da. Bebarru garbitzaileak, buzoak, labarretako arkitektoak, kostaldeko idazleak, Mai Elkanok, arrain saltzaileak...osatuko dute fauna akuatiko postmodernoa. Lurrundutako jendea edota, jende eferbeszentearen garaira heldu baino lehen, likidoa izan den denbora bateko lekukotasuna.

Nerea Arrien (1976, Lekeitio).

Biokimika eta piano ikasketak egin zituen, eta irakaslea da gaur egun. Bere testuek argia ikusi zuten lagun argazkilari baten argazkiei hitzak jarri zizkienean. Ordutik hona, kolaborazio asko egin ditu hainbat aldizkaritan. *Pentsatzeko txokoa*, *Atrapa eguna*, *Eskola hodeian*, *Hirutter* (helduen literatura) eta 2020an *Etxegabetuak*. Lehenengoari Lizardi saria eman zioten. Bigarrenari, *Farolillos de Papel*. Bidean egindako ipuin pare bat ere saritu zizkioten; Julene Azpeitia edota Gabriel Aresti sarietan accesit banarekin. <https://www.erein.eus/liburua/jende-likidoa>